



Basaburuko Udala
CIF P 3104900 J
31866-Jauntsarats (Nafarroa)

2021EKO MAIATZAREN 28AN BASABURUKO UDALAK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

Jauntsaratsen (Basaburuan), 2021eko maiatzaren 28an, arratsaldeko 19:00etan, ondoren izendatzen diren jaun andereak bildu dira, ohiko bilkuran, legearen arabera bideratutako deialdia eginda, Esther Lakasta Perez Ilzarbe alkatearen lehendakartzapean, eta Lucia Beloqui Iriarte, udal idazkariaren laguntzarekin.

BERTARATUAK: Santos Etxegia, Xabier Azpiroz eta Ricardo Arangoa.

BERTARATU EZ DIRENAK: M Mar Ansorena, Julen Beunza eta Olatz Dorai.

Bertaratu da baita ere Ascensio Indakoetxea Berueteko kontzejuko alkatea.

19:00etan lehendakariak bilkura hasitzat eman du eta gai zerrendan dauden gaiak lantzeari ekin zaio.

GAIZERRENDA

1.- Aurreko aktaren onespina.

Apirilaren 29an egindako batzarreko akta emailaz helarazi zaie zinegotziei eta aho batez onartzen dute bildutakoek aurreko batzarreko akta.

2.- Alkate ebazpenak

Alkateak ondoren transkribatzen diren ebazpenak irakurtzen ditu.

- 2021/49 alkate ebazpena: Baimena ematea Ultzamako Gizarte Zerbitzuei, Apeztegi berriko 1 solairuko gela erabiltzeko, maskulinitate ikastaroa egiteko, maiatzaren 6an eta 14an, arratsaldeko 17:45etatik 20:15 etara.
- 2020/50 alkate ebazpena: Gorka Etxeberriari zuzendua onartuz 2021 urteko Zirkulazio zergaren dagokion zatiaren itzultzea NA1054AW matrikuladun autoa

behin betiko baja emateagatik, itzuli beharreko kopurua 62,63 eurokoa izanen delarik.

-2021/51 alkate ebazpena Baimena ematea Ultzamako Gizarte Zerbitzuei, Apeztegi berriko 1 solairuko gela erabiltzeko, maskulinitate ikastaroa egiteko, maiatzaren 6an eta 14an, arratsaldeko 17:45etatik 20:15 etara.

- 2021/52 alkate ebazpena Onartzea Laura Martinena Espinalek egindako eskaera, 2021. urteko zirkulazio zergaren dagokion zatiaren itzultzea SS1444BB matrikuladun autoa behin betiko baja emateagatik, itzuli beharreko kopurua 62.62 eurokoa izanen delarik.

- 2021/53 alkate ebazpena: Bereizketa baimena ematea Juan Astizi, Orokietako 8. Poligonoko 169. Lursailetik 448,70 m² bereiztu eta polígono bereko 20. Lursailerarekin elkartzeko

- 2021/54 alkate ebazpena: Baimena ematea Antonio Garcia eta Irati Perezi Udabeko 2. Poligonoko 104. Lursailerako ur kontagailua eramateko, baldintzekin.

- 2021/55 alkate ebazpena: Ez onartzea Antonio Mariezcurrena Arreguiri Igoako 9. Poligonoko 284. Lursailetik 6.000m² bereizteko eskaera, /2018. Ezezko txostena Nekazaritza Azpiegituren 2002/1 Foru Legearen 48. Artikuluaren arabera, laborantzako gutxieneko unitatea 10 hektarea direlako.

- 2021/56 alkate ebazpena: obra baimenaren aldaketa onartzea Pilar Ochotorena eta Jesús Manuel Arangoari: Berueteko 12. Poligonoko 31, 311 eta 516. Lursailetan dagoen kalearen urbanizazioa egiteko.

-2021/57 alkate ebazpena: Baimena ematea Oihanzabal Guraso Elkarteareri Apeztegi berriko 2 solairuko gela txikia erabiltzeko, guraso elkartzeko bilera irauten duen denboran ludoteka zerbitzua finkatzeko.

-2021/58 alkate ebazpena: Onartzea Juan Alberdi Sanchezek egindako eskaera 1477KMN autoaren klasifikazioa aldatzeko eta trafikotik bidalitako informazioaren arabera kobratu beharreko tasa 140,10 eurotik 58,72 eurora pasatzen da.

-2021/59 alkate ebazpena Baimena ematea Iker Fernandez Palaciori, Maiatzaren 29an goizeko 9etatik eguadiako 14etara batera ikasten ari diren umeei kontzertua eskeintzeko, Aizarotzko kultur etxean.

-2021/60 alkate ebazpena: onartzea ATISAE enpresak aurkeztutako aurrekontua 360 eurokoa BEZ kanpo Apeztegi berriko behe tentsioko ikuspana egiteko.

2021/61 alkate ebazpena Onartzea Aizarotzko herrikoetxeko kudeatzaileari ostatuko makinak martxan jartzeko gasta, 100,91 eurokoa eta 800 euroko gastua erosi dituen Kutxa erregistratzaileagatik, kajo eta imprimagailuagatik.

-2021/62 alkate ebazpena: Baimena ematea Aralar Musika Eskolari, Oihanzabal ikastetxeko psikomotrizitate gela erabiltzeko klase pilotu batzuk egiteko, maiatzaren 21ean arratsaldeko 16:00etatik 16:45etara.

- 2021/63 alkate ebazpena: Baimena ematea Aizarotzko Auzokide Elkartearen izenean egindako eskaera, Ekainaren 11ean arratsaldeko 18etatik 21etara eta ekainaren 12an 11etatik 13etara, Aizarotzko kultur etxeko aretoa erabiltzeko formakuntza ziklo bat egiteko.

-2021/64 alkate ebazpena Onartzea, M^a Teresa Elizalde Insausti 15657837 NAN zenbakia duenari aparkatzeko elbarriadako txartela ematea.

-2021/65 alkate ebazpena Onartzea, Aezkoako bailararen Batzorde Orokorrek maiatzaren 3an aurkeztutako mozioaren aldaketa Mikel Zabalzaren heriotzaren ikerketaren inguruan.

-2021/66 alkate ebazpena: Onartzea, Teofila Azpiroz Garrori 15657803R NAN zenbakia duenari aparkatzeko elbarriadako txartela ematea

-2021/67 alkate ebazpena: Onartzea, Mercedes Azpiroz Garrori 15657769J NAN zenbakia duenari aparkatzeko elbarriendako txartela ematea.

-2021/68 alkate ebazpena: Julen Beunza Arano Basaburuko Udaleko zinegotziaren esku uztea UEMAko batzar orokorrean parte hartzeko eskubidea eta aipatu ebatzorganoan dagozkidan eginkizun guztiak berak bete ditzan.

-2021/69 alkate ebazpena: Baimena ematea Aralar Musika Eskolari, Oihanzabal ikastetxeko patio edo Apeztegi berriko ganbara erabiltzeko, kontzertua eskeintzeko ekainaren 10ean, 15etatik Aurrera.

-2021/70 alkate ebazpena: Baimena ematea Cederna Garalurri, Apeztegi berriko lehen pisuan dagoen gela eta bertan ere dagoen proiektorea erabiltzeko, ekainaren 3an arratsaldeko 17:30etatik aurrera.

Bildutakoek ontzat ematen dituzte irakurritako alkate ebazpenak.

3.- Bake epaile ordezkoren hautaketa.

Nafarroako Justizia Epaitegi Gorenetik jakinarazi zuten martxoaren 23an Basaburuko bake epaile ordezkoren agintaldia bukatzeaz zegoela, hortaz Bake Epaileen Erreglamentuaren 5 eta 7 artikuluetan arautzen zuena jarraituz, Nafarroako Aldizkari Ofizialean bake ordezkoren kargua hutsik zegoela argitaratu zen. 15 eguneko epean interesatuak izena emateko aukera ireki zen, apirilaren 13an argitaratu zenean aipatutako iragarkia.

Epe horretan ez da inor kargurako aurkeztu hortaz zozketa bidez egingo da hautaketa. Excel taula batean sartu dira Basaburuan erroldatutako 18 urtetik gorako biztanleak eta formula bidez zozketa egin da eta hautatua izan da:

Hau ikusita eta Bake Epaileen Erreglamentuaren 6 eta 7 artikuluetan adierazten da udaleko batzarrak gehiengo osoz izendatzen dutela bake epailea edo honen ordezkoa Hortaz Basaburuko udaleko batzarrak gehiengo osoz, ondoko erabakia hartzen du:

-Irentxu Martinena Espinal 33438105SNAN zenbakiduna eta Aizarotzko bizilaguna, izendatzea Basaburuko bake epaitegiko bake epaile ordezko eta akordio hau berari eta Nafarroako Justizia Epaitegi Gorenari jakinarazi.

Xabier Azpirozek bilera uzten du.

4.- Irekiera baimenik gabe Iriarteko Borda alokatzeagatik txosten zigortzailearen kontra jarritako helegitea.

Alkateak azaltzen du txosten zigortzailea ireki zela 21/2021 ebazpenen bidez, martxoaren 9ko datarekin eta sustatzaileari jakinarazi. Alegazio epean, apirilaren 7an ebazpen honen kontrako alegazioak jarri ditu.

Irakurtzen dira alegazio hauek eta hauen inguruan Biderka aholkulariek egindako txostena.

Hortaz bildutakoek aho batez, ondoren zehazten den erabakia hartzen dute:

- **Onartzea Biderka Aholkularitza zerbitzuak egindako txostena Trinidad Prietok jarritako alegazioen ingurukoa Iriarteko Bordan irekiera baimenik gabe landa etxe bezala alokatzeagatik.**
- **Ez onartzea Trinidad Prieto Morenok jarritako alegazioak 2021/21 ebazpenaren kontra Biderka Aholkularitza zerbitzuak egindako txostenaren arabera.**
- **Finkatzea isun larria bezala, 2005/4 Foru Legearen 75.2a artikulua arabera, Iriarteko Borda irekiera baimenik gabe alokatzea eta Zaipatutako foru legearen 77.2 artikulua arabera 20.000 euroko isuna jarri.**
- **Erabaki hau jabeari helaraztea.**

Gai ordenetik kanpo beste hiru gai daude aztertzeko, bildutakoek aho batez onartzen dute gai ordenean sartzeari, alde batetik langabetuen kontratazioaren proiektua eta dirulaguntza eskaeraren onespina izanen litzateke bestetik Saldiasoko udalak Basaburuko ehiza barrutian sartzeko egin duen eskaera eta azkenik Beramendiko industriagunearen plan partziala eta urbanizazio proiektuak egiteko zerbitzu kontratuaren esleipena

2021eko langabetuen proiektua, kontratazioa eta diru laguntza eskaera onartu.

Alkateak azaltzen du urteroko proiektua aurkeztuko dela, Basaburuko senden garbiketa, eta elementu turistikoaren mantenimendu lanak egitea. Aipatu ere kontzejuetan eskatzen dituzten hainbat mantenimendu lan ere sartu direla. Proiektu hau martxan jartzeko 4 langile kontratatu dira lanaldi osoan, bi emakume eta 51 urtetik gorako bi gizon.

3 epeko kontratua egin zaie. Orain kontratua egiten zaienetik hilabeteko epean eskatu behar da dirulaguntza, behin batzarrak proiektua eta diru laguntza eskaera onartzen dituenean.

Hau guztia ikusita, Basaburuko udaleko batzarrak aho batez ondoren zehazten den erabakia hartzen du:

- 2021eko langabetuen kontratazioarako proiektua onartzea, Basaburuko elementu turistikoaren mantenimendurako proiektua.

- 4 langile kontratatzeako gastua ere onartzea eta horretarako diru laguntza eskatzea Nafarroako Enplegu Zerbitzuko Zuzendariak sinatutako 2018/251 Ebazpenaren baldintzetan oinarrituz.

-Erabaki hau Nafarroako Enplegu Zerbitzura jakinarazi.

Saldiasoko udala Basaburuko ehiza barrutian sartzeko eskaera.

Irakurtzen da Saldiasoko udalak egindako eskaera, bertan azaltzen du aurretik sartua zegoen ehiza barrutiarekin ezin duela ehizatu Beintza Labaien barruti horretatik atera delako eta hortaz Saldias ez da beste udalerrietako mugakide. Basaburuko mugakide izanik Basaburuko ehiza barrutian sartzeko esakera luzatzen dio udalari.

Udaletik eskaera hau kontzejuetara bidali zen, maiatzaren 21a arte epea emanaz egindako eskaeraren inguruan oneritzia emateko.

Kontzeju guztietatko ordezkariak baiezkoa eman dute eta orain udalak Aizarotzko eremuko ordezkari bezala ere oneritzia eman behar dio aipatutako eskaerari.

Eskaera ontzat ematearen inguruan Santos Etxegiak azaltzen du Saldiasko alkatearekin hitzartutakoa dela onartzea ehiza barrutian sartzeari baina udalerritik atera gabe ehizatzeak baldintzarekin.

Gai aztertu ondoren, bildutakoek ondoren zehazten den erabakia hartzen dute aho batez:

-Saldiasko udalak egindako eskaera onartu eta Saldiasko udalerrria Basaburuko ehiza barrutian sartzeko eragozpenik ez dagoela adierazi.

-Tramitazioarekin aurrera jarraitzeko erabaki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua izan dadin agindu, 15 egun baliodun, alegazioak jartzeko aukera irekiz.

Basaburuko udalak sustatutako iharduera ekonomikoen gunea sortzeko, plan partziala eta urbanizazio proiektuen asistentzia kontratuaren esleipena.

Alkateak azaltzen du, bilera egin dela aurkeztutako proposamenak irekitzeko, prozedura modu irekian egin da, 2018/2 kontratu publikoen foru legearen 72. Artikuluaren arabera.

Aipatzen du ere proposamenak aurkezteko epean Nafarroako Arkitektoen Elkargoak helegite bat jarri zuela prozedura arautzen duen pleguaren kontra, 14d irizpidearen kontra hain zuzen ere (lantaldean emakumeak izatea baloratzen zuen irizpidea. Helegitearen funtsa izan da irizpide honi puntuak ematea ez duela zerbitzua hobetzen. Hau kontutan hartua izan da balorazioa egiterakoan , eta hortaz emakumeak lantaldean izatearen 5 puntuko gehienezko balorazioa ez da egin eta hortaz 95 puntu gehienez lortu ahal zituzten aurkeztutakoek.

6 enpresa edo arkitekto aurkeztu dira, eta proposamenak ireki ondoren hau da jaso duten balorazioa:

Empresa	Puntuazioa osotara
Carlos Cobo	94.99
Jose I. Arribas	82.75
Aluja	81.08
Itziar Iriarte	77.40
Daihe	68.63
Cima	63.69

Puntuazio hoberena Carlos Cobo arkitektoarena izan da eta hortaz batzarrak berari esleituko dio aipatutako zerbitzu kontratua, 20.803.19 eurotan eta proiektuak 29 eguneko epean egiteko.

Erabaki hau esleipendunari eta parte hartu duten guztiei jakinarazi.

5.- Mozioak.

Alkateak bi mozio daudela onartzeko adierazten du, Palestina eta Colombian gertatzen ari denaren inguruan.

Colombiako gertakarien inguruko bi mozio irakurtzen ditu bata EH Bildutik jasotakoa eta bestea Basaburuko bizilagun batek aurkeztutakoa. Biak uztartuta hau da bildutakoek onartzen duten mozioa:

“Colombian gertatutakoaren inguruko mozioa

Basaburuko Udalak bere kezka adierazi nahi du azken egunetan Kolonbian gertatutakoarekin. Apirilaren 28an Ivan Duque presidentearen Gobernuak ezarritako zerga-erreformarako proposamenaren aurka lanuztea egin zutenetik, 1.120 bat jarduera egin dira, elkarretaratze eta martxa artean, 390 udalerritan eta Bogotan, ehunka mila pertsonak parte hartu dute.

Pasa den apirilaren 28tik, errepresio eta indarkeria polizial eta militarra herrialde osoan zabaldu da. 31 pertsona erail dituzte, 1.443 polizia eta militar indarkeria kasu baino gehiago egon dira, 10 sexu indarkeria kasu ordena publikoko agenteen eskutik eta 38 pertsona baino gehiago daude desagertuta. Hau guztia gertatzen ari den arren, nazioarteko komunitateak ezer esan gabe jarraitzen du, Ivan Duqueren gobernuak Kolonbiako herria inpunitate osos erreprimitzen jarraitzeko bidea libre utziz.

Protesta baketsu horien aurkako errepresioa oso bortitza eta larria izan da Kolonbiako Estatuko segurtasun indarren aldetik, NBEk salatu duenez. Maiatzaren 1ean, Duque presidentek Laguntza Militararako Mandatua agindu zuen, eta Armadako kideak herrialdeko zenbait hiritan egotea erabaki zuen. Horrek giza eskubideen urraketa ekar dezake, Kolonbiako Indar Publikoa borrokarako entrenatuta eta armatuta baitago, eta ez protesta sozialari eusteko. Gainera, Kolonbiako Armada Nazionalak duen armamentua hilgarritasun handikoa da. Horren aurrean, gogorarazi behar da estatuek indar militarren erabilera ahalik eta gehien mugatu eta baldintzatu behar dutela barne-istiluak kontrolatzeko.

Horregatik guztiagatik:

- 1- Gure elkartasuna adierazten diegu indar publikoaren abusuaren ondorioak jasan dituzten eta jasaten dituzten kolonbiako pertsona guztiei.
- 2- Protesta sozial baketsuaren aurka indarra erabili izana gaitzesten dugu eta Kolonbiako gobernuari eskatzen diogu indarra ez erabiltzea.
- 3- Indarkeria Publikoak (Polizia eta Armada) eragindako indarkeria-gertakari guztiak argitzea eskatzen dugu, eta dagozkion erantzukizunak zehaztea, bai eta bere herriaren

aurka zigorrik gabe gauzaten diren Kolonbiako giza eskubideen eta sarraskien urraketa sistematikoei amaiera emateko konpromisoa hartzea ere.

4.- Kolonbiako Estatuari eskatzen diogu premia ezar ditzala babes-neurriak eta bitzitza juridiko eta sozialaren bermeak, bai lider sozialentzat eta haien komunitateentzat, bai bakearen sinatzaile ohientzat eta haien familientzat, eta protesta sozial baketsua bitzitarako segurtasun-baldintzetan egiteko bermeak ere.

5.- Nafarroako Gobernuari, Espainiako Gobernuari eta Europar Batasunari eskatzen diegu aktiboki parte har dezatela Kolonbiako Gobernuari giza eskubideen urraketekin amaitzeko egiten zaizkion eskakizunetan, giza eskubideen defendatzaileei eta bake-akordioaren sinatzaileei babesa ematen jarrai dezatela, eta giza eskubideen berri eman eta bermatzeko behatzaileen bidalketa ebalua dezatela.

6.- Manifestariekin, oposizio politikoarekin eta mobilizatutako sektore sozialekin hitz egiteko guneak adosteko eskatu du, protestak eragin zituzten eskaerei eta aldarrikapenei aurre egiteko.

7.- Kolonbiako Gobernuko agintariei eta aipatutako erakundeei bidaliko zaie agiri hau.

Bildutakoek aho batez onartzen dute transkribatutako mozioa.

Bigarren mozioa Palestinako egoerari buruzkoa da, bi mozio jaso dira honen inguruko EH Bildutik jasotako eta Basaburuko Basandereok elkartetik, azken hau irakurtzen du alkateak:

“ Egun batzuk lehenago, herri palestinarrek Nakbaren 73. Urteurrena gogoratu zuen (hondamendia, arabieraz), Israelen okupazioa, kolonizazio eta garbiketa etnikoaren politiken hasiera adierazten duena.

Tristuraz eta atsekabez ikusten ari gara politika horiek gaur egunera arte jarraitzen dutela. Ramadanaren hasieratik, mezkiten zabalgunea eta Jerusalem hiri zaharra Israelgo armadak eta poliziak setiatu dituzte. 300 palestinar baino gehiago zauritu ditu poliziaren eta militarren bortizkeriak, baita Al Aqsako meskitaren barruan ere, kolono israeldar armatuek palestinarrek mehatxatu eta erasotu dituzte, gehienetan Israelgo poliziaren babesarekin. Seikh Jarrah auzoan, 28 familia baino gehiago bizi dira jabetze eta lur horiek kolono israeldarren esku uzteko mehatxuarekin, Jerusalem hiri judeizatzekeko estrategia baten barruan: eta indarkeria hori Gaza-raino iritsi da, Israelgo armadak bonbardaketak egin dituen bi egunetan 140 pertsona baino gehiago hil baitira, horien artean 40 haur palestinar.

Gazatik jaurtitako suziriaren helburu diren Askhelon, Holon eta Tel Aviv hiri eta kokaleku israeldarrei buruz ere hitz egiten dute albisteak, izan ere, oso gutxitan jotzen dute Israelgo lurraldean. Baina albiste horiek ez digute esaten Israelgo hiri edo kokaleku horietako asko 1948an Nakban suntsitutako herri palestinarren gainean eraiki direla eta Israelgo herritar horietako asko horietatik kanporatutako `palestinarren etxeetan eta jabetzetan bizi direla. Bai, gehiago suntsituta, mapatik desagertuta, eta 800.000 pertsona baino gehiago kanporatuta eta desplazatuta. Gaur egun 5 millioi errefuxiatu palestinar baino gehiago

daude, eta Israelek ez die itzultzeko eskubiderik ematen, nazio Batuen aitortpena izan arren.

Israel apartheid estatu bat da. Ez dugu guk esaten. Human Rights Watchek egindako txosten batek, apartheid (arrazza bereizketa) eta palestinarrei jazartzeko politikak aplikatzea leporatu dio Israelei, gizateriaren aurkako krimen gisa tipifikatuta baitadue. Eta apartheid erregimen horri mendebaldeko gobernuen eta enpresen konplizitateari esker eusten zaio, estatu horretako politikei zerbitzuak, azpiegiturak eta laguntza ekonomikoa ematen baitizkiete.

Zentzu horretan, Eshik Jarrah auzoan geratzen ari dena ezin da Jerusalemgo tranbiaren erakuntzatik bereizi, bertan CAF euskal trenbide enpresak parte hartzen baitu. Tranbia honek Jerusalem eta Palestinako lurralde okupatutako legez kanpoko kokalekuak lotu ditu, Sheikh Jarrah auzoa zeharkatzen duen proiektua, non esan dugun bezala, Israelgo estatuak babesten dituen legez kanpoko kolonoak, bere indar miliar eta poliziak, auzo palestinarra etnikoki garbitzen saiatzen ari diren.

Era berean, ezin dugu ahaztu estatu espainiarrak Israeli armak saltzen jarraitzen duela eta hildako palestinar asko Euskadin egindako armekin egindakoak izan daitezkeela. Israelek herri palestinarren aurka egiten dituen ekintza horiez gain, aipatu behar da diskriminazio moduak basatiak direla herri palestinarren eguneroko bizitzako eremu guztietan, diskriminazioa dago, baita koronabirusen pandemiaren arabera ere. Eta Israelek pandemia gainditzeko izan duen arrakastaren berri ematen digute, baina ez horri aurre egiteko lankidetzarik ezarena. Jerusalemgo hirian diskriminazioa egon da, baita azterketa eta laginketa zentroetan ere. Israelek kontrolatu egiten ditu sendagaiak, mediku-tresnak, laginak eta horrekin zerikusia duen guztia eta horrek urritasuna dakar Palestinako herriarentzat. Palestinako gobernuak zenbait adierazpen egin ditu okupazioak gaixotasunak azkarrago hedatzea ekarri duela azaltzeko.

Basaburutar garen aldetik ezin dugu axolagabe jarraitu eta horrengatik salatu nahi digu isiltasun konplizea eta gure gobernuen adierazpen huts eta anbiguoak, Palestinako herriaren aurkako eraso militarra ahalbidetzen dutenak. Garai honetan ez da nahikoa herri palestinarren genozidioaren gaitzespen lausoa, 1.948. urteaz geroztik behin eta berriz egin baita. Eskatzen duguna gertaera zehatzak dira, sarraskia gelditzeko eta herri palestinarra bere horretan aitortzeko.

Elkartasuna adierazi nahi diegu beti gatazkaren pisua jasaten ari diren emakume palestinarrei, dela familietako buru izaten, dela senideren bat atxilotzen dutenean, dela

pobreziari, gaixotasunari eta genero diskriminazioari aurre egiten. Baldintza horietan emakume palestinarrek erresistentzia eta konfrontazioa moduak garatu dituzte, lurrerako itzuleran, ekonomia alternatiboan, familiaren eta kooperatiban oinarrituta. Hala, zapalkuntza eta jazarpen moduei elkartasunez eta autosufizientzia handiagoz aurre egiten saiatzen dira, osasun zerbitzuak, zerbitzu psikologiakoak, sozialak eta legalak ere eskainiz.

Horrenbestez, Basaburuko Basandereak elkarteak honako erabaki hauek hartzeko eskatu dio udalbatzari:

1.-Basaburuko udalak elkartasuna adierazten dio palestinar herriari eta gogor gaitzesten du Israelgo gerra indarraren erabilera Gazako biztanleria zibilaren aurka, bai eta okupatutako lurralde guztietan ere, eta eskatzen du berehala buka daitezela Israelek herri palestinarren aurka egindako erasoak eta bonbardaketak.

2.- Basaburuko Udalak Nafarroako eta Espainiako erakundeei eskatzen die bertan behera utz ditzatela Israelgo estatuarekin sinatutako akordio ekonomiko, kultural, akademiko eta diplomatiko guztiak, Israelek nazioarteko zuzenbidea bete arte.

3.- Basaburuko Udalak babesa ematen die Gazan Israelek Palestinako herriaren aurka egindako eraso kriminala gaitzesteko deitutako ekintzei.

4.- Erabaki hau Nafarroako lehendakariari eta Espainiako gobernuko lehendakariari jakinaraztea, horren arabera jardun dezaten.”

Bildutakoek aho batez onartzen dute transkribatutako mozioa.

6- Batzordeen informazioa.

Garapen Batzordea. Ricardo Arangoak ematen du informazioa.

Ekainaren 1ean bilera eginen da uztailaren 25eako Mendialdeko Azoka prestatzeko. Ondoren ekainaren 3an Cedernak deitutako bilera ere burutuko da.

Kontzejuen Batzordea. Santos Etxegiak ematen du informazioa.

Kontzejuen bilera deituko da, 2020ko kontuak aurkezteko eta Toki Administrazioiko Departamentutik jasotako informazio eskaeraren inguruan hitz egiteko, antza 2022rako tokiko inbertsioetarako plan berria ateratzeko da.

7- Informazio orokorra.

Ez dago.

8. Errege-galderak

Ez dira egin.

Eta gai gehiago aztertzeko ez dagoenez arratsaldeko 20:45 direnean bilera amaitutzat eman da eta idazkariak horrela izan dela ziurtatzen du.